

artekka



**OBRERISMOAREN
BUSTO HAUTSIA**

GEDAR

Erreformismoak komuniston
klase-diskurtsoa
obrerismoarekin alderatzen
eta nahasten duenean –langile klaseari
erreferentzia egite hutsagatik–, bere mugak
aplikatzen ari zaizkio koordenatu horietatik
kanpo dagoen mugimendu komunistari.
Izan ere, azken horrek ez du klasea betikotu
behar den izate sozial gisara ulertzen, eta ez
du bere ahalmena ekonomia kapitalistara
mugatzen. Komunistok subjektu iraultzailearen
gorputz soziala proletalgoan identifikatzen
dugunean, erreformistak ez bezala, ez gara
kapitalismoaren produktu den proletalgoaren
onarpen soilaz ari, zeinaren parte izateaz
harro omen dauden batzuk, berau gainditzeko
potentzialaz baizik, zeinak, oinarrian,
gizarte berri bat ekoizteko gaitasuna bere
existentzia kontraesankorrean biltzen duen.

Edukia

6

10

22

44

EDITORIALA

Arteka

**Obrerismoa
ispiluaren
aurrean**

KOIUNTURA POLITIKOA

Dani Askunze

**Obrerismoak,
baikortasunetik
erreakziora**

ERREPORTAJEA

Arteka

**Kapital
industriala
eta faxismoa:
altzairuz
forjatutako
adiskidetasuna**

ERREPORTAJEA

Arteka

**Obrerismoa,
ajeatutako
errepresentazioa**

Obrerismoa ispiluaren aurtean

Editoriala

Aurretik aritu izan gara sozialdemokraziaren eta faxismoaren arteko erlazioaz; bigarrena lehenaren porrot historikoaren emaitza izan ohi da, krisi kapitalista bide demokratiko-burgesetik gainditzeko saiakeran. Saiakera horrek burgesiaren botere politikoaren berregituraketa du xede, eta hori, ekonomiaren eta bere printzipio demokratiko-liberalen krisia medio, demokraziaren bidetik egin ezin denean, diktadura faxista baliatuta erdiesten da.

Sozialdemokraziak faxismo bilakatzeko duen joera ere aipatu izan dugu, baita joera horrek bien programarekin duen erlazioa eta programa hori gauzatu ahal izateko bi joera politikoetan Estatuak duen zentralitatea ere. Oraingoan, baina, biek xede duten klase-soziologia espezifikotik jaiotzen den kultura eta politika obrerista ditugu mintzagai.

Obrerismoa sozialdemokraziaren eta faxismoaren masa-politikaren osagai garrantzitsu bat da. Izan ere, masa-politikaren helburua doktrina bati gorputz soziala ematea bada, obrerismoa ezinbesteko bitartekari bilakatzen da mugimendu politiko horiek errotze soziala izan dezaten.

Errotze sozial horrek forma burokratiko eta autoritarioa izan behar du ezinbestean: burgesiaren

***Obrerismoa sozialdemokraziaren eta faxismoaren
masa-politikaren osagai garrantzitsu bat da.
Izan ere, masa-politikaren helburua doktrina
bati gorputz soziala ematea bada, obrerismoa
ezinbesteko bitartekari bilakatzen da mugimendu
politiko horiek errotze soziala izan dezaten***

diktaduraren hedapena da, tarteko kontrol-mekanismo bat erabilita, burgesiaren boterearen eta masa zabal bizigabearen arteko mendeko lotura gauzatu behar duena. Hala definitu izan dugu klase ertainaren funtzioa, burgesiaren babes talde gisa. Bestela ere esan daiteke: klase ertaina –eta bere alderdi politikoak– burgesiaren estatu-tresna da, bere botere politikoa modu efektiboan gauzatzen duena, edo botere abstraktuari menderakuntzaren forma zehatza ematen diona.

Politika obreristen xedea klase ertaina da. Bere bitartez, hau da, gizarte burgesaren instituzio burokratikoan ondo errotuta dagoen klasearen bitartez, burgesiak bere menderakuntza hedatzen du langile klasearen baitan. Zehazki, langile aristokraziaren nagusitasuna defendatzen du obrerismoak, eta efektiboa den nagusitasun horretan du bere jatorria. Horrela, sindikalgintza burokratikoaren bitartez langile subjektibitate bat sortzen da, estuki lotuta dagoena esparru fisiko berdinean lan egiten duen langile kolektiboaren korporatibismoarekin. Bata eta bestea desagertuta daudenean, ordea, langileria agortutzat ematen dute, eta subjektu berriak bilatu. Baina hori posible da, obrerismoarentzat, kultura eta politika hori sortzen diren baldintzetan ere –hau da, langile aristokrazia eta horrek indus-

Politika obreristen xedea klase ertaina da. Bere bitartez, hau da, gizarte burgesaren instituzio burokratikoan ondo errotuta dagoen klasearen bitartez, burgesiak bere menderakuntza hedatzen du langile klasearen baitan. Zehazki, langile aristokraziaren nagusitasuna defendatzen du obrerismoak, eta efektiboa den nagusitasun horretan du bere jatorria

tria-esparruko langile kolektiboan hartzen duen forma zehatza zentro inperialistan gehien errotutako gorputz soziala denean ere–, egiaz, langile klasea ez delako subjektu komunista iraultzailea eratzeko gorputz eta indarra.

Beraz, aipatutakoa, hau da, garapen kapitalistaren ondorioz, eta lanaren banaketa internazionala medio, zentro inperialistan gertatzen den klase ertainaren eta langile aristokraziaren desintegrazio prozesuaren ondotik datorren subjektibitate obreristaren krisia, soilik itxuraz da obrerismoaren gaindipena; eta soilik gainditze faltsua delako leporatu diezaiekete erreformistek komunistei obreristak izatea, klase-gizartea, oro har, eta bereziki gizarte kapitalista, gizarte klasistaren adierazpen garatuenaren gisara, indargabetu nahi dugun heinean, eta prozesu hori langile klasearen emantzipazio prozesu gisara eta bere baitan antolatzen den mugimendu komunista gisara ulertzen dugun heinean. Izan ere, akusazio hori, klasea administrazio ekonomikoko arazo batera murrizten dutenen eta bere determinazio politiko eta soziala klase-gizartearen oinarri modura ulertzen ez dutenen aldetik soilik erator daiteke.

Bada, eta iduri dezakeenaren aurka, obrerismoak justifikazio sozial handiagoa du bere gorputz soziala desagertzen den heinean; izan ere, kontua ez da existitzen den errealtateari forma politiko

bat eta kontzepzio bat ematea, baizik eta errealtate hori, hau da, tarteko engranajeen bidez gauzatzen den proletalgoaren mendekotasuna, gainditu ahal izatea eragozte. Obrerismoa oparotasun kapitalistaren garaian ahots ozeneko adostasun sozial bat da, eta krisi kapitalistaren garaian proletarioen bazterketa aktibo eta esplizituaren politika da.

Horregatik, langileriaren goi-kaparen nagusitasunarekin jaiotzen diren kultura eta politika ez dira bere gorputz sozialarekin desagertzen, baizik eta are agerikoagoak egiten dira bere ondorioak eta mugak: obrerismoaren xede den langile-geruza gutxituarekin jarraitzen da identifikatzen klase-borroka eta langile mugimendua, baina, arrazoi kuantitatiboak medio, subjektu berriak gehitzen dira ekuaziora, klase-borroka ekonomiaren alor partzialera zokoratuz, eta errealtatea bere osotasunean eraldatzeko ezgai dela ebatziz. Bada, obrerismoa alor partzial batean eragiteko masa-politika erreformista da –baina osotasun-bokazioa duena, partzialtasun horrek gizarte kapitalistaren kontzepzio bateratua eragozten duen heinean–, bai sozialdemokraziak nola faxismoak besarkatzen dutena, eta proletalgoaren potentzia politikoen deuseztapenean oinarritzen dena.

Obrerismoaren ondorio politikoak erabat kaltegarriak dira langile klasearen emantzipaziorako; are gehiago, emantzipazioaren kontzepzioari

Obrerismoa alor partzial batean eragiteko masa-politika erreformista da –baina osotasun-bokazioa duena, partzialtasun horrek gizarte kapitalistaren kontzepzio bateratua eragozten duen heinean–, bai sozialdemokraziak nola faxismoak besarkatzen dutena, eta proletalgoaren potentzia politikoen deuseztapenean oinarritzen dena

berari erasotzen dio, komunismoaren aukera itxiz. Obrerismotik ondorioztatzen da helburua ez dela errealitatea eraldatzea, dagoena beste modu batean orekatzea baizik. Horrek ere eragiten du «subjektu zapalduak» edo «bazterreko subjektuak» deiturikoen goraipatzea, eta horien lekua aldarrikatzen da indarrean den gizarte burgesak ekoitzi dituen bezala, eta ezker posmodernoak hipostasiatutako identitate gatazkatsu gisara. Horren aurrekaria obrerismoan eta klasearen zein klase-harrotasunaren goraipatzean dago, pobretutako eta sozialki baztertutako klase batentzako medizina mentala dena; izan ere, psikologia positibo baten bidez eta kolektibo batekiko borondatezko pseudopertentzia pretentsioaren bidez, klase horren ezaugarriak eta miseriak ezkututzen dira, ondorio politiko honekin: proletalgoaren despolitizazioa eta inposatutako baldintza bat proletalgoak berak erabakitako bizimodu gisara onartzea. Klase-harrotasun hori halabeharrez da zapalduaren goraipatzea, eta, berekin batera, zapaltzailearena.


Azken batean, obrerismoak subjektu komunistentaren desegitea dakar, bere osagaia, proletalgoa, ekuazio politikotik kanpo utziz. Partzialki ulertutako ekonomiaren alorrean kabitzen den praktika bakarra ekonomia horri dagozkion legeen arabera-kon praktika da. Klase-borroka erreforma ekonomikoen aldeko borrokekin identifikatzen du obreris-

moak, politika klase ertainaren alderdi politikoei kapitalaren instituzioetan gauzatzen duten horrekin lotuz.

Horregatik, erreformismoak komuniston klase-diskurtsoa obrerismoarekin alderatzen eta nahastzen duenean –langile klaseari erreferentzia egite hutsagatik–, bere mugak aplikatzen ari zaizkio koordinatu horietatik kanpo dagoen mugimendu komunistari. Izan ere, azken horrek ez du klasea betikotu behar den izate sozial gisara ulertzen, eta ez du bere ahalmena ekonomia kapitalistara mugatzen. Komunistok subjektu iraultzailearen gorputz soziala proletalgoan identifikatzen dugunean, erreformistak ez bezala, ez gara kapitalismoaren produktu den proletalgoaren onarpen soilaz ari, zeinaren parte izateaz harro omen dauden batzuk, berau gainditzeko potentzialaz baizik, zeinak, oinarrian, gizarte berri bat ekoizteko gaitasuna bere existentzia kontraesankorrean biltzen duen ●

Obrerismoak, baikortasunetik erreakziora

Testua — **Dani Askunze**



Azkenaldian, *klase*, *langile* eta ahaztutzat jotzen ziren, edo, behintzat, esparru eta ingurune jakin batzuetara oso mugatuta zeuden antzeko zenbait kontzepturen *revival* bat gertatzen ari da. Zer da langile-klasea gaur egun? Nortzuk osatzen dute? Ba al du horrek eraginkortasun politikorik? Zer toki du identitateen bazarrean? Langile-identitatea identitate bat gehiago al da beste batzuen artean? Talkan dago beste identitateekin, edo bateragarriak dira? Zer gertatu zen klase-borrokarekin? Galdera horiek entzun daitezke, zehaztasun eta zorrozatasun gutxi-askorekin, ezkerreko espektro nahaspilatsuko hainbat artikulugile, akademiko, tertuliakide, sare sozialetako erabiltzaile eta Interneteko eduki kontsumitzailearen ahotan.

Azaleko edo ez hain azaleko polemika horietan, askotariko iritziak aurkitzen ditugu. Gauza bera esan dezakegu ezkerrik politikoenaren eta bere joera ezberdinei buruz ere. Hala ere –eta hau da hemen defendatuko dugun tesia–, horietako gehienek, modu batera edo bestera, izendatzaile komun bera partekatzen dute: beren obrerismoa. Artikulu honek ez du obrerismoaren gaia maila teorikoan aztertutako nahi; esparru politikoago batean esanguratsuak diren eta praktika emantzipatzaileko erabilgarriak izan daitezkeen zenbait gairen inguruan ohartaraztea du helburu.

Obrerismoa ideologia gisa –ideologia ororen moduan, gehitu behar-ko litzateke– ez da ezerezetik sortzen, eta ez du airean flotatzen; zergati batzuk ditu. Eta hori esateak ergelkeria irudi dezake, baina lehen urratsa da zergati horiek identifikatzen saiatzeko, eta, horrela, hori gainditu ahal izateko oinarriak jartzeko. Egin dezagun ibilbide historikoaren errepasso labur bat.

Obrerismoa ideologia gisa aipatu dugu; baina, zeren ideologia gisa? Gizarte mailan soldatapeko lanaren zentralitatearen ideologia gisa, ekoizpen mailan industriaren zentralitatearena, maila politikoan langile-mugimenduarena. Obrerismoa, beraz, langile-zentralitatearen ideologia gisa sortu zen, errealtatearekin bat zeto-rren unean. Egiari zor, errealtate hori oraindik nagusi ez zenean baina las-ter nagusituko zela iragartzen zuten unean hasi zen forma hartzen. Atzera egin genezake tradizio sozialistaren eta haren eskola ezberdinen garai askotara, XX. mendetik atzera, eta XIX. mende osoari eta aurreko garaiei

erreparatu. Ikusiko dugunez, hasiera-hasieratik garrantzi handiko eztabaidagaia izan zen klasearen ertzen gaia, eta horiek milimetrikoki bat ote zetozen proletariotza industrialaren ertzeekin. Ez gara kapritxo soziologista batez ari, funtsezko zeregin politiko batez baizik: gizateria osoa askatuko zuen subjektu iraultzailea definitzeaz. Horrenbestez, aldarte baikorra eta borondate progresista zituen obrerismo hasiberri batez ari gara.

Obrerismo baikor horrek joan den mendeko 70eko hamarkadan izan zuen amaiera, eta hura izan zen bera sostengatuko zuen eta nabaria izango den langile-zentralitate batean erro- tuta egon zen azken aldia. Obrerismo hori hainbat modutan garatu zen; Italiako *operaismoa* da horietako bat, garai hartako esperientzien arteko gailur teoriko-praktikoa¹. Espainiako Estatuan ere izan zuen bere adieraz- pen, non Frankismoaren amaierako krisiak lehen mailako eragile politiko bat izan zuen kausa nagusien artean, zeinak gerora historia Trantsizioan gertatu zenaren oso bestelako modu batean idatz zezakeen: langile-mugi-

***Obrerismoa
langile-zentralitatearen
ideologia gisa sortu
zen, errealitatearekin
bat zetorren unean***

Ofentsibara zegoen langile mugimendu berri hori lan-eremu hutsetik harago zihoan, eta garaiko ezkerreko korronte ezberdinen urratsak markatzen zituen

mendua². Mugimendu horrek, bere korrelatua baino, bere agertoki nagusietako bat izan zuen Hego Euskal Herrian, non ofentsibara zegoen langile mugimendu berri hori lan-eremu hutsetik harago zihoan, eta garaiko ezkerreko korronte ezberdinen urratsak markatzen zituen. Garaiko ezkerra, ondorioz obrerista zena, mugimendu horren atzetik zebilen une jakinetan. Mugimendu bakoitzak bere intentzio partikularrak zituen: mugimendua otzantzea eta geldiaraztea, PCEk (Espainiako Alderdi Komunista) kasu; mugimenduaren buruan jarri eta bera gidatzen saiatzea –erabateko kontrolik sekula lortu ez arren–, ezker erradikala saiatu zen moduan³; mugimendu horren potentziaz elikatzea eta mugimendua bere estrategian kokatzea, ezker abertzalearen adar ezberdinak ahalegindu ziren gisan –ahalegin horrek, aldi berean, ezker abertzalea bera erradikalizatu zuen dudarik gabe–; eta, azkenik, (Langile) Autonomiak⁴, mugimendu horren alde dena eman zuenak, *botere guztia asanbladarentzat* aldarrikatzea.

Nortasun politiko propioa zuen langile-mugimendu hura desagertu egin zen. Porrota, desagitea, integrazioa...

Langile-zentralitatearen ideologia hura zen, baina dagoeneko langile-zentralitaterik gabe

Istorioaren amaiera, zoritxarrez, ezaguna da. Nortasun politiko propioa zuen langile-mugimendu hura desagertu egin zen. Porrota, desagitea, integrazioa... hainbat ñabardura izan arren, emaitza bera izan zen azken finean. Horrek obrerismo baikor baterako beharrezko baldintzekin amaitu zuen, zeina bazitekeen oker egon izana, baina borondate iraultzaile ukaezina zuen. Eta ateak ireki zizkion obrerismo ezkor bati. Langile-identitatea fosilizatuta geratu zen iraganean izan zen horretan –edo inoiz existitu ez zen iragan baten nostalgia gisa–, errealitatetik deskonektatuta eta ahal politiko iraultzailea zeharo galduta. Ondoren etorri zen ezkerre ez zen gai izan karga horietatik guztietatik kritikoki askatzeko, eta harrapatuta gelditu zen, aldeaz edo moldez gauza berbera erreproduzitu zuelarik.

Langile-mugimenduaren desagertze politikotik harago, aldaketek aurrera jarraitu zuten. Garrantziari dagokionez, gizarte-mugimendu berriek hartuko zioten erreleboa langile-mugimendu hari. Eta, izatez, gizarte-mugimendu partzial bat gehiago bihurtu zen, ez jada gizarte-mugimendu guztia biltzen zuen mugimendu aglutinatzaile boteretsu hura. Antzinako langile-gatazkak instituzionalizatutako lan-harremanek ordezkatu zituzten. Eta beren adierazpen erradikalenak erabateko nahi eta ezina bihurtu ziren, gainbehera orokorraren sintoma. Industriako langile-mugimendu zaharrak industriaren birmoldaketaren aurkako gudu gogorretan topatu zuen bere hilobia⁵. Galdutako borroka bakoitza ez zen soilik porrot sindikal edo politiko bat; industriako langile-klasearen gizarte- eta ekoizpen-oinarria ere txikitu zituen ezinbestean. Obrerismoa gorpu ideologiko bat izatera igaro zen; langile-zentralitatearen ideologia hura zen, baina ordu-rako langile-zentralitaterik gabe.

Zeintzuk dira, bada, obrerismo horren ezaugarriak? Artikulu honen xedea ez da balantze historiko osoa egitea langileen bidei buruz eta iraganeko esperientzia iraultzaileetan izandako erabilera eta gehiegikeriei buruz. Bai, ordea, langile-kontzepzioen eta haien ikuspegi erreakzionarioenei⁶ –hau da, kontrairaultzailei– buruz, une horretatik aurrera gehiago garatu zirenak (lehenago ere bazeuden arren), eta gaur egunera arte iritsi direnak. Klase-borroka bere une ekonomikoan izozteko joeraz ari gara, arlo sindikal hutsera mugatuta. Klasea kapitalaren engranaje moduan ikusteaz ari gara, harreman sozial kapitalistaren baitako alderdi bezala, kapitala bera (eta bere burua) ukatzen duen ikuskeraren aurrean. Politikan, era ageriagoko edo lausoago batean izan arren, erreformismoari lotuta etorri zen, eta klase-borroka kapitalismoak ezarritako muga barruan aberastasunaren birbanaketa negoziatzeko hutsera murriztu zen. Behin horraino iritsita, obrerismoa ezarritako ordena justifikatzen duen ideologia izatera pasatu zen, lanaren eta ahaleginaren apologiaren elementu moralista guztiak barne hartzen zituen. Osagai horien guztien bidez erabat kapitalista den identitate bat eraiki zen: langile-identitatea; eta hura erreproduzitzen duen ideologia identitarista bat: obrerismoa.

***Osagai horien guztien
bidez erabat kapitalista
den identitate bat eraiki
zen: langile-identitatea;
eta hura erreproduzitzen
duen ideologia identitarista
bat: obrerismoa***

Obrerismo klasikoak zatia osotasuntzat hartzen du eta, aldiz, klaserik gabeko antikapitalismoak osotasuna hartzen du zatitzat: klase-borroka borroka sindikalera mugatzen da

Honaino argi geratzen da obrerismo gordinaren karakterizazioa. Baten batek galdetuko du: zer zerikusi du horrek guztiak egungo ezkerarekin? Ba, egiazki, egungo ezkerre aipaturako obrerismo horren biharamunetik sortua dela. Eta oinordetzan jaso duela obrerismo hori, nahiz eta beste modu batzuetan birformulatu. Ikus ditzagun adibide batzuk.

Adibiderik garrantzitsuena klaserik gabeko antikapitalismoarena da, bere kontrapartida argiena baita. Oso hedatuta dago gizarte-mugimendu guztietan. Izan ere, subjektu oso zehatz baten (industriako langilea) aldeko apustu orokorrak historikoki porrot egin bazuen, horren aurrean emandako erantzuna gainerakoari entzungor eginda aurrera jarraitzea eta zeinahi subjekturi uko egitea izan zen. Horrek iraultza sozialerako edozein aukerari uko egitea esan nahi du (estrategia, badaezpada, aipatu ere ez dugu egingo), iraultza soziala gertatu arte itxarotea litzatekeelako kontua. Diskurtsiboki ematen zaion irtenbidea mugimendu partzial horietako bakoitzari *antikapitalista* abizena jartzea da, hori egiteak bere izaera aldatuko balu bezala.

Bien bitartean, klase-borroka ez da existitzen bere zentzu politikoan: onartzen zaion alor bakarrean hasi eta amaitzen da, lan-arloan (edo kasurik onenean, *sozioekonomian*). Hori ez da kontraesankorra, eta berretsi egiten du dogma obrerista. Obrerismo klasikoak zatia osotasuntzat hartzen du eta, aldiz, klaserik gabeko antikapitalismoak osotasuna hartzen du zatitzat: klase-borroka borroka sindikalera mugatzen da. Biek klasearen ulerkera bera izango lukete zentzu hertsian: batzuek, hura inposatzeko; besteek, hura desitxuratzeko. Ezkerrean hedatuen dagoen ulerkera da, bai herri-mugimendu eta mugimendu sozialetan, baita alderdi instituzionalistagoetan ere. Beren erredukzionismoa onartzeko gai ez diren horiek behin eta berriz leporatzen digute guri horixe bera, nori eta hain zuzen ere, beste inork baino sutuago eta arduratuago borrokatzen dugunoi, bai teorian baita praktikan ere.

Politika-alorrean hain garrantzitsua ez izan arren, ulerkera obreristen beste ondorio bat zenbait korrante feministarena da. *Feminismo autonomo* italiarraren kasua da (Dalla Costa, Fortunati, edo denetan mediatikoena den Federici), eskema obrerista bera hartuta, determinazio osoz errealitatea iraultzen saiatzen baita mugimendua errealitate horretara moldatuz. Lehen lantegia klase-borrokaren agertoki pribilegiatu gisa ulertzen bazen han lan produktiboa (ekoizpena eta gainbalioaren erauzpena) egiten zelako, autore horiek etxeko lana lan produktibo gisa identifikatzen dute (!). Era berean, Delphy eta beste zenbait autoreren *feminismo materialista* ere multzo berean sailka genezake; baieztazen dutenez, sexuek klaseak osatzen dituzte, eta etxeko ustezko ekoizpen modu baten baitan sexuen arteko gerra bat gertatzen da. Materialistak eta autonomoak bereziki bitxiak iruditu dakizkiguke, baina oro har, bi-biek dogma obreristen gaizki-ulertuetatik edaten dute, gainerako korrante feministek eta klaserik gabeko antikapitalismoak bezala.

Klase-borroka berrabiatzeak obrerismo ororen gaindipen kritikoa izan behar du oinarritzko premisia moduan

Baina gaur egungo fenomenoetara itzuliz, bada azken boladan presentzia mediatikoa eta kale presentzia hartzen joan den obrerismo berri bat, nahiz eta berez oso zaharra izan. Zaharra diot, berriz ere betiko ikusmolde okerretan oinarritzen delako; gainontzeko ezker *traidoreari* etsaitasun suharra adierazi arren, ulerkera berberak partekatzen ditu. Eta berria diot, loratu izanaren azken arrazoiengatik. Obrerismoak berak jada identitarismo bat osatzen zuen, langile-identitatea baitzen haren izateko arrazoi politikoa. Baina kasu honetan, ezaugarri hori areagotu egiten da identitate-politiken burrunbaren testuinguruan. Ez dago, beraz, ezer posmodernoagorik ustezko antiposmodernismo hori baino. Posmodernismo horrek argi eta garbi adierazten du erabat karikaturizaturiko ustezko langile-identitate baten atzera-egiteko erreakzioa. Adierazten dutenez, langile-identitate hori defentsiban legoke, gorantz ari diren beste identitate berri batzuen aurrean –*degeneratu* gaitzespenez izendatuak–. Identitate hori klasean aurki daitezkeen ezaugarri erreakzionarioenekin eraikitzen da, eta elkarrekiko oposizioan jartzen ditu modu eksklusibo batean aspektu ekonomikoa den hori, ustez interes ilunek bultzatuta, eta horretatik aldentzen diren beste aspektu guztiak. Obrerismoaren eta nazionalismoaren arteko bat-egite horrek bilakaera logiko bat osatu du azkenean, sozialdemokraziak eta bere politika sozial-patriotak lehenbizi, eta faxismoak eta bere obrerismo *nazionalak* jarraitu zuten patroik historiko berbera jarraituz ondoren. Errealitatea egoskorra da, eta topatu daitezkeen antzekotasunak era arriskutsuan zentzuzkoak dira.

Ikusi dugunez, obrerismoak muturrekoak eta eksklusibistak diren bertsioak izan ditzake, aipatutako azken hori esaterako. Edo lehen aztertu dugun txanponaren ifrentzua, azken finean oinarri berberak partekatzen dituen, nahiz eta horiek ukatzea izan helburu. Biek elikatzen dute elkar, biak leku beretik abiatzen dira eta biak dira borrokatu beharrekoak, are gehiago beren garai dekadentean. Langile-zentralitatea eta klase-borroka sinonimotzat hartzen zituztenentzat, lehenengoaren amaierak bigarrenaren amaiera ekarri zuen. Eta gaur egun beren obrerismo erreakzionarioa klase-borroka gisa saldu nahi dutenek ere klase-borroka bera ukatzen dute. Ukazio hori obrerismo mota guztien puntu komuna eta azkena da, hein batean. Gaur egun goranzko joera duen eta antolatuta dagoen komunismo bat izateak gertakarien bidez ukatzen ditu bi horiek. Eta erakusten du gaur egun klase-borroka berrabiatzeak obrerismo ororen gaindipen kritikoa izan behar duela oinarritzko premisa moduan ●

ERREFERENTZIAK

- 1.** Tronti, M. (2006). *Operaismo y política*. Artillería inmanente.
- 2.** Rodríguez, E. (2015). *Por qué fracasó la democracia en España*. Madril: Traficantes de Sueños.
- 3.** Satrustegi, I. (2021). «Barrikada bereko lagunak». *Arteka*.
- 4.** Murias, A.; Arrizabalaga, J. (1997). *Autonomoekin solasean*. Tafalla: Txalaparta
- 5.** Tra Bajo Zero (2020). *La ideología asturiana (actualizada y revisada)*. Tra Bajo Zero.

Tra Bajo Zero (2020). *Marx en la bahía. De Naval Xixón a la nada (Apunte sobre la descomposición del sindicalismo en Asturias)*. Tra Bajo Zero.
- 6.** Pérez, N. (2021). «M1: klase diskurtsoaren erabilera interesatuez». *GEDAR LANGILE KAZETA*.

Kapital industrialala eta faxismoa: altzairuz forjatutako adiskidetasuna

ON

Testua — **Arteka**

Irudia — **Zoe Martikorena**

Mymikry (Mimetismoa, 1931)

Alemaniko John Heartfield artista komunistak AIZ astekarian (*Arbeiter-Illustrierte-Zeitung* edo Langileen Egunkari Ilustratua) argitaratutako fotomuntaketa. Bertan Joseph Goebbels agertzen da Adolf Hitler Karl Markez moztarotzen. Modu horretan, faxisten obrerismoa salatu nahi izan zuen autoreak


AIZ

V. b. b. - Erscheint wöchentlich einmal - Preis: 1,60 Kz., 40 Gr., 1,25 Frs.,
30 Rp., 20 Pfg., 10 amer. Cts., 15 holl. Cts. - Jahrgang XIII. - Nr. 16.
19. April 1934

MIMIKRY

Nachdem alle Versuche, die nationalsozialistischen Ideen in die Arbeiterschaft zu tragen, erfolglos geblieben waren, ist Göbbels auf einen letzten verzweifelten Einfall gekommen: er hat den „Führer“ überredet, fortan, wenn er vor Arbeitern spricht, sich einen Karl Marx-Bart umzuhängen.

Zeitungsmeldung vom 8. April 1934:
„Die diesjährige Maiplakette der Nationalen Arbeitsfront trägt neben einem Goethekopf und dem Adler mit Hakenkreuz auch die bolschewistischen Symbole Hammer und Sichel, offenbar um auf diese Weise die dem Regime immer noch ablehnend gegenüberstehenden Arbeiter zu gewinnen.“



Adolf Hitler
eta Gustav
Krupp enpresari
alemaniarra (Alfried
Krupp enpresariaren
aita) Gustaven
70. urtebetetze
ospakizunean



«Krupp firma osatzen dugunok ez gara idealistak, errealistak baizik. Hitlerrek egiazko garapen baterako aukera emango zigulako irudipena genuen. Gainerakoan, gauzatu du garapen hori. Hasieran alderdi populistaren alde bozkatu genuen, baina kontserbadoreak ahulak ziren. Ogiaren eta boterearen aldeko borroka gogor honetan zorrotz gidatuko gintuen norbaiten beharra genuen, eta Hitler, hain justu, halakoa zen. Haren agindupean emandako urteetan pozik egon ginen. Sistema efiziente bat nahi genuen, lasai lan egiteko bitartekoak emango zizkiguna»

— Alfried Krupp

TyssenKrupp AG enpresa alemaniarren arbaso den Krupp partzuergoko buruzagi ohiaren hitzak ditugu aurrekoak, Nurembergeko prozesuan egindako adierazpenean. XX. mendearen lehen erdian Europako armagintza industriaren gailurrean zegoen Krupp taldea. Hori dela eta, Alemaniako gobernu guztien politika ekonomikoan protagonista izan zen. 1941ean enpresaren lekukoa hartu zuen Alfriedek, bereziki, bokazio faxista nabarmena izan zuen; belaunaldi hartako industria astuneko kapitalista gehienen antzera. 1931tik SStako ⁽¹⁾ kide izan zen, Hitlerren jarraitzaile leiala. Naziak boterera heldu zirenean, Krupp taldea gudaroste naziaren arma ekoizle begikoena bilakatu zen. Horri esker, Wehrmacht-ak okupatutako lurralde ugaritan ekoizpen-unitateak kokatu zituen. Kruppen lantegietan bakarrik, 100.000 judu zein eslaviar inguru baliatu zituzten lan-indar esklabo gisa.

Datuok ez dira kasu anekdotiko baten konstantzia, Alemaniako eta Italiako goi-burgesiaren sektore esanguratsuek XX. mende hasieran egindako maniobra historiko oso baten joera adierazten digute. Krupp taldeari egin diogu erreferentzia, baina posizio berean aurki genitzake Thyssen, Siemens, Bosch, Volkswagen, BMW, Bayer nahiz bere garaian garrantzitsuak ziren beste hainbat konglomeratu industrial ere. Baina nola baldintzatu zuten zehazki kapital industrialok XX. mendeko faxismoaren forma zein norabidea? Nolakoa izan zen, zehazki, industria astuneko kapitalista handien eta faxisten arteko harremana? Zein funtzio historiko betetzen zuen langilego industrialari loturiko erretorika obreristak mugimendu faxistaren baitan? Erreportaje honek auzion inguruan hausnartzeko elementuak mahaigaineratu nahi ditu.

Sarritan aipatu izan den moduan, faxistek industria astuneko aberaskumeen, lur-jabe handien eta adar horietan interesak zituzten bankari jakin batzuen babes zuzena jaso zuten Italian eta Alemanian. Bestalde, bere masa mugimendua burges txikiz eta langilez ere hornituta egon zela aipatu izan da; goi-burgesiaren interesei erantzuten zien fenomeno politiko bat izan arren. Klase menperatzailearen fakzio konkretu batzuek, gainera, faxismoarekiko jarrera kontrastesankorrek izan zituzten. Daniel Guérin komunista frantsesak estatu faxisten baitan lerrokatu ziren interes nahasiok azaldu zituen, burgesen arteko lehiaren eta klase borroka orokorraren kontzeptuetan sakonduz. «Horregatik garrantzitsua da ikertzea ea Alemanian eta Italian burgesia osoak, faxismoa diruz lagundu zuen horrek, nahi izan zuen diktadura, ala zehazki talde kapitalista batzuek nahi izan zuten. Ez dut uste errepikatu behar denik alderdi burgesak ez direla talde kapitalisten isla, baizik eta, hobeto esanda, haien tresna», zehaztu zuen ⁽²⁾. Bere hitzetan, oro har, industria astunaren eta arinaren artean konfrontazio historiko bat existitu da. Izatez, bi taldeok «interese ekonomiko zein estrategia sozial dibergenteak» garatu dituztela diosku Guérinek. Industria arinera lotutako burgesia altzairuzko anaia zaharraren monopolio historikoaz kexatu izan da. Atzerri-politikari dagokionez, armagintzarekin harreman handiagoa duen industria astunak jarrera oldarkorrek eta abentura inperialistak lehenetsi izan ditu. Industria arinak, aldiz, produktu ez-militarrak esportatzen dituenek, gerra eta autarkia errefusatzeko joera handiagoa izan du. Gainera, azken hori nazioarteko kapitalarekin lotuago egon da, industria astunak protekzionismora jo izan duen bitartean.

Langile klasearekiko jarrera ere desberdina da bi talde kapitalista klasikoen artean. Metalgintzako eta meatzaritzako kapitalistek, adibidez, *borrokako patroien* pentsamoldea garatu

Industria arinera lotutako burgesia altzairuzko anaia zaharraren monopolio historikoaz kexatu izan da. Atzerri-politikari dagokionez, armagintzarekin harreman handiagoa duen industria astunak jarrera oldarkorrek eta abentura inperialistak lehenetsi izan ditu. Industria arinak, aldiz, produktu ez-militarrak esportatzen dituenek, gerra eta autarkia errefusatzeko joera handiagoa izan du

dutela dio Guérinek, hau da, jokabide autoritarioagoa izan dutela langile mugimenduaren aurrean. Horretarako bi arrazoi aipatzen ditu: 1) euren enpresen tamaina eta ekonomia nazionalean zein Estatuaren baitan izandako pisu politikoa eta 2) kapitalaren konposizio organikoa. Bigarren faktorean sakonduz, Karl Marxek azaldu zuen moduan, kapital finkoaren (makineria, lehen-gaiak, lurra...) eta kapital aldakorren (lan-indarra) arteko erlazioari gagozkio ⁽³⁾. Industria astunean kapitalaren konposizio organikoa askoz altuagoa denez, irabaziak lortzeko muga estuagoak daude. Altzairugintzako enpresa handiek ekoizpen gaitasunak errendimendu betean ez darabiltzatenean, esate baterako, euren instalazioetako kostu finko erraldoiak fabrikatutako produktu gutxiarekin amortizatu behar izaten dituzte. Hiztegi politikora ekarrita, greba ordu gutxi batzuekin soi-

lik, industria astuneko burgesiak mii- loidun galera ekonomikoak jasan ditzake. Krisiarekin, berriz, ondoko gertatzen zaio industria astunari: kapital finkoko gastuak murriztu ezin dituenek, aurrezki oro lan-indarraren kontura atera beharko du. Ondorioz, soldaten murrizketa basatia behar-beharrezkoa zaie gainbehera ekonomiko u ne kritikoetan. Langileen erresistentzia antolatuak eta gutxi- neko askatasun politikoek, agerikoa denez, *larrialdiko ihesbide* hori blokeatzen diote. Industria arineko burgesek, bestetik, *klase-kolaborazioarekin* edota *bake sozialarekin* etxekotu nahi izaten dute proletalgoa, sozialdemokrazia klasikoaren antzera. Ondorioz, industria astuneko kapitalistek arrazoi objektibo gehiago izan dituzte faxismoa babes- teko, batez ere merkatuak murriztuta eta lehengai-iturriak lehortuta zituzten aginte-unitate inperialistetan.

Dena den, industria arineko burgesen eta fakzio politiko liberalen jarrera ez zen erabat irmoa izan faxismoaren aurrean, inondik inora. Zer dela eta? Guerinek azaltzen duen moduan, industria arineko talde kapitalistek ez zuten faxismoaren garaipena desiratzten; baina, bi arrazoiengatik, ez zioten oztopo handirik ere jarri. Lehenik eta behin, faxismoaren izaera *nazionalagatik*, hau da, klase jabearen esanetara dagoen mugimendu bat delako. Bigarrenik, hasiera batean faxismoaren irismen totalitarioa gutxien zutelako eta nahieran telegidatu zezaketelakoan zeudelako. «Indar proletarioen aurkako kontrapisu gisa» baliatzea aurreikusten zutela dio Guerinek; parlamentarioki nahiz kaleko talka-taldeekin.

Italian eta Alemanian faxismoak masa-indar esanguratsua eta pisu politiko propioa metatu zituen, ordea. Benito Mussoliniren eta Adolf Hitlerren hordak aipatutako aginte-fakzioen interes espezifikoak oldarkortasun handiz babesteko determinazioarekin kokatu ziren eszena politikoan, oposizio oro pixkanaka desagerraraziz. Halaber, arrisku erreala bistakoa zenerako, berandu zen faxismoari bide ez-armatuetatik aurre egiteko. Industria arineko kapitalistek eta politikari liberalek pauso bat atzera egin zuten, euren klase interes historiko orokorrak desberdintasun partzialen gainetik jarritz. Guda zibiletan *herrikideen* odolik isurtzeko prest ez zeudenez, faxismoaren aginte totalitarioarako pista libre utzi zuten. Gauzak horrela, talde kapitalista nazional desberdinek, aktiboki ala pasiboki, *granitozko blokea* eratu zuten. Beste modu batean esanda, faxismoa boterera heldu zen *burgesiaren alderdi historikoak* koiuntura jakin baterako haren alde egin zuelako.

Ondorioz, soldaten murrizketa basatia behar-beharrezkoa zaie gainbehera ekonomikoko une kritikoetan. Langileen erresistentzia antolatuak eta gutxieneko askatasun politikoek, agerikoa denez, «larrialdiko ihesbide» hori blokeatzen diote

Faxismoa boterera heldu zen «burgesiaren alderdi historikoak» koiuntura jakin baterako haren alde egin zuelako



Laburbilduz, Guerinen interpretazioari jarraiki, Alemania eta Italiako faxismoak bi fase esperimentatu zituen. Prozesuko ziklo bakoitzean, aurrerago ikusiko dugunez, funtzio zein protagonismo-maila desberdina izan zuen erretorika obreristak.

1) Hasieran, kapital handiak ez zuen faxismoa boterera eramateko asmorik. Talde uniformatuei karta zuria ematearen arrazoia erresistentzia proletarioa zapaltzea eta 1919ko Versaillesko Itunaren errebantxa historikoa lortzea izan zen hasiera batean.

2) Krisialdi kapitalistak errentagarritasun-tasak kritikoki mehatxatu zituenean, ordea, *Estatu indartsu* batek baino ezin zezakeen sistemaren egonkortasuna bermatu. Hala, jauzi kualitatibo bat eman eta faxismoa botere politikora katapultatu zuten Lehen Mundu Gerratik galtzaile atera ziren potentzietako klase agintariak, modalitate berriko diktadura bat ezarri⁽⁴⁾.

Faxismoak masa-irismena izan dezan, ezinbesteko baldintza objektiboa da krisi kapitalistaren ondoriozko klase ertainen pobretze erlatiboak polarizazio sozioekonomikorako joera progresiboan sakontzea

KRISIA, ASKATASUN POLITIKOAK ETA FAXISMO SOZIOLOGIKOA

Ernest Mandel pentsalari marxista belgikarrak ere faxismoak aginte politikoa eskuratzea ahalbidetu zuten faktoreak xehatu zituen, *faxismo gorakorren* berehalako mehatxua eta *Estatu indartsua* gisako kontzeptuak bereiziz. Gogora ekarri zuenez, «faxismoaren abiapuntua burgesia txiki desklasatu eta pobretuan datza»⁽⁵⁾. Hau da, faxismoak masa-irismena izan dezan, ezinbesteko baldintza objektiboa da krisi kapitalistaren ondoriozko klase ertainen pobretze erlatiboak polarizazio sozioekonomikorako joera progresiboan sakontzea. Inflazioa, negozio txikien porrota, errentadunen irabazien uzkuartzea, funtzionarioen soldaten izoztea edota goi-mailako ikasketadun teknikoaren langabezia bezalako fenomenoak izan ohi dira, besteak beste, faxismoaren bazka. Halako joerak areagotzen direnean, erreakzio burges txiki nostalgikoak sortzen dira, usu muturreko nazionalismoa nahiz demagogia antikapitalista elkarlotzen dituztenak. Kontrara, burgesia txiki atzerakoi eta oparo bat soziologikoki gailentzen denean, «neofaxismoak ez du masa-oinarri zabalik irabazteko inolako aukera objektiborik. Jabe aberatsak ez dira kalean langile iraultzaile edo ezker muturreko ikasleen kontra



borrokatzen. Nahiago dute poliziarri deitu eta hari arma hobeak eman asaldurez ardura dadin»⁽⁶⁾. Mandelen ustez, hor datza ertain klaseetako elementu etsiak antolatuz langileria izutzen aritzen den faxismoaren eta *Estatu indartsuaren* arteko aldea. Estatu autoritarioak langile mugimendua zein militante iraultzaileak gogor erreprimitu ditzakeen arren, ohikoa da horien erabateko atomizazioa eta desmoralizazioa ez lortzea.

Aurreko arrazoiengatik, Mandelek *Faxismoa* izeneko obra idatzi zuen garaian (1969) ezin zitekeen mehatxu faxista zuzenik hauteman Europako Ongizate Estatuaren feudoan. Hori bai, egoera arras aldatu da ordutik, eta ondoko arriskua ohartarazten zuen egileak: «Beharrezkoa litzateke egoera ekonomikoa modu erabakigarrian aldatzea faxismoaren berehalako arriskua Mendebaldeko estatu kapitalistetan berragertzeko. Ez da inola ere baztertzen era horretako aldaketak etorkizunean gerta daitezkeenik; are gehiago, litekeena da hori gertatzea»⁽⁷⁾. Joan den mendeko 30eko hamarkadakoaren antzeko oldarraldi faxista bat piztu aurretik, pentsalari belgikarrak ezinbesteko ataza bat nabarmentzen du: «Hobe da existitzen ez diren faxismoaren mehatxuek eragindako txundidura saihestea, neofaxismoaz gutxiago hitz egitea, eta azpimarra jartzea Estatu indartsuarekiko burgesiak duen joera oso erreal eta konkretu horren kontrako borroka sistematikoan, hots, langileen eskubide demokratikoen eskubide-murritzeta sistematikoan»⁽⁸⁾.

Askatasun politikoon murritzeta nabarmenak lirateke, besteak beste, salbuespen neurriak, greba eskubidearen urraketak, greba borrokalariak antolatzeagatik ezartzen diren isun zein espetxe-zigorak, manifestazio eskubidearen mugaketak, masa komunikabideetako manipulazioa, atxiloketa prebentiboak eta abar. Krisia bera bezalaxe, gaurkotasun osoa duten fenomenoak dira, zalantzarik gabe.

Hala ere, faxismo gorakorren eta iraunkorren teoriak elementu zuzen batzuk dituztela aitortu zuen marxista belgikarrak. Izan ere, oinarritzko askatasun politikoen aurkako erasoen onarpen pasibo eta despolitizatuak arrisku bat dakar: murritzetak eraginkortasunez ezartzeak klase menperatzailearen gose errepresiboa areagotu eta *gauza gogorragoetara* bultz dezake. Halaber, langile mugimendua zein mugimendu iraultzaileak ofentsiba politikoari aurre egingo ez balio, klase etsaiari ariko litzaioke oparitzen eskura duen botere apurra. Borrokarako tresna oroz desjabetuta, langileriaren erresistentzia salduta legoke koiuntura ekonomikoak ezartzen duen hurrengo gainbehera larriak. «Erresistentzia ez bada eguneroko borroketan konstantziaz eta irmotasunez landu urteetan zehar, ez da azken unean zerutik jausiko»⁽⁹⁾, ohartarazten digu Mandelek.

Hari beretik tiraka, gogoan izan behar genuke faxismoarako faktore guztiak ez dituela krisiak eragiten, horietako asko elementu ideologiko iraunkorrak baitira formazio sozial

kapitalistan. Faxismoak indarra hartu aurretik dauden baldintza subjektibo jakin batzuek erraztu egiten dute haren masa-garapena. Horren adibide dira Mendebaldeko erdigune inperialistako klase ertainetan sustraituta dauden pentsamolde erreakzionario ugariak. Estratu sozialok ekoizpen-harreman kapitalistetan zein estatu-aparatu burgesean duten posizioagatik propioak zaizkien aldagai kultural nazionalista eta obreristekin du zerikusia horrek. Arrazakeria, xenofobia, *gertakari arrortzekiko* erresumin irrazionala, sekuritarismoa, gutxiengo iraultzaile eta inkonformistekiko jarrera oldarkorra, meritokrazia, *esfortzuaren kultura*, langabe kronikoak alfertzat jotzea, laguntza sozialetatik bizi diren pertsonak *parasitoekin* alderatzea edota kapital finantzario-espekulatzailarekiko nagusitasun morala ertain klase garai-kideen kontzientzia kolektiboan oso errotuta dauden elementuak dira. Soldatapeko lanak eta jabetza pribatuak objektiboki ardaizten duten *herritar* baldintza abiapuntutzat hartuta, definizio existentzial horrekin bat ez dotozenak zein berau zalantzan jartzera ausartzen direnak ezabatu, baztertu edota diziplinatzearekin amesten dute maiz klase ertainek. Ideia amalgama horrek *faxismoaren germena* osatzen duela esan genezake. Ezaugarriok oparoldi ekonomikoen garaian politikoki hibernatzen duten arren, pentsa ezinezko iratzartze itzela izan dezakete krisialdian; iritzi-talde kaltegabeak ziruditenak salatarien eta matoien armada eraginkorrak bilakatzeraino.

Oinarritzko askatasun politikoen aurkako erasoen onarpen pasibo eta despolitizatuak arrisku bat dakar: murritzetak eraginkortasunez ezartzeak klase menperatzailearen gose errepresiboa areagotu eta «gauza gogorragoetara» bultz dezake

***Soldatapeko lanak eta
jabetza pribatuak objektiboki
ardazten duten «herritar»
baldintza abiapuntutzat
hartuta, definizio existentzial
horrekin bat ez datozenak
zein berau zalantzan
jartzera ausartzen direnak
ezabatu, baztertu edota
diziplinatzearekin amesten
dute maiz klase ertainek***



MASA-MUGIMENDU FAXISTA ETA OBRERISMOA

Wilhelm Reich psikologo marxista austrohungariarraren ustez, irizpide metodologiko aproposa da faxismoaren masa-oinarriaren interes subjektiboak eta mugimendu politiko beraren funtzio objektiboa bereiztea ⁽¹⁰⁾. Guerin parafraseatuz, esan daiteke faxismoa ez dela kapital handiaren menpeko tresna soila; pobretuta eta haserre dagoen burgesia txikiaren *matxinada mistikoa* ere bada ⁽¹¹⁾. Halatan, faxismoaren kontraesan nagusiak bi aspektuon arteko antagonismoan oinarritzen direla uste zuen Reichek. Interklasismo fundazional horretatik abiatuta ikertu behar da ideologia obreristak faxismoaren baitan jokatzeko duen rola, bai eta XX. mendeko faxismoak esperimendatu zituen momentu estrategiko orokorrak ere: masa-mugimenduaren fasea eta botere politikoaren fasea.

Masa-mugimenduaren hasierako fasean, goi-burgesiarekiko independentzia ideologiko erlatiboaz eta hori politikoki garatzeko nolabaiteko abaguneaz gozatu zuen faxismoak. Jardun proselitistaren baitan langileriaren aldeko adierazpen abstraktuak, hitzontzikeria *antikapitalista* utopikoa, estetika sozialista, kolpismoa, faxismoaren ezker hegalararen protagonismoa edota tematika proletarioak baliatu zituzten, besteak beste. Adibide bila urrutira joan gabe, alderdi naziaren izen osoa *Langile Alderdi Nazionalsozialista Alemaniarr*a zen. Faxismoaren trebetasun politikoa, ordea, Guerinnek esan moduan, bere burua antikapitalista gisa aurkeztea izan zen, kapitalismoari kalte larririk eragin gabe. Pentsalari frantsesaren arabera, Italiako eta Alemaniako masek «joera dute pentsatzeko egiazko etsaia ez dela euren kapitalismoa, atzerriko kapitalismoa baizik» ⁽¹²⁾. Kapital atzerriarra, nazien kasuan, judutarrekin lotzen zen gainera. Horretarako, kontzeptu gakoak *nazio proletarioa* izan zen, langile masek klase sozial kolpatuena nazioarekin identifikatu zezaten, eta alderantziz. Reichek



azaldu zuen legez, formula horrek langileak autoritatearekin, enpresarekin, nazioarekin eta Estatuarekin identifikatzera zeramatzan. «Errealitate psikiko bat ordeztu du eta indar material bihurtu den ideologia baten adibiderik garbienetakoa da», ondorioztatu zuen Reichek ⁽¹³⁾. Josef Goebbels propaganda ministro naziaren esaldiok, bestalde, ezin hobeto biltzen dute faxismoaren propaganda-taktika obrerista: «Zein da sozialismo alemaniarraren helburua? Etorkizunean Alemanian proletariorik ez egotea nahi du. Zein da nazionalismo alemaniarraren helburua? Etorkizunean Alemaniak munduko proletario izateari uztea nahi du» ⁽¹⁴⁾.

Burgesia txikiaren arreta pizteko aski izan zitekeen kontzeptu propagandistiko hori ez zen erabat baliagarria izan langile geruzetan sartzeko. Horregatik, faxistek *funanbulismo* politikoa praktikatu zuten masa-mugimendu fasean, bi klase sozial nagusien artean dantzan. Nagusiki grebak eta bestelako langile mobilizazioak sabotatzen aritzen ziren bitartean, eskirol ospea ere saihestu nahi izan zuten. Euren greba propioak antolatu zituzten, eta zenbait kasutan, milizia faxistek bur-

**Esan daiteke
faxismoa ez dela
kapital handiaren
menpeko tresna
soila; pobretuta
eta haserre dagoen
burgesia txikiaren
«matxinada»
mistikoa ere bada**

Korporatibismoak langileak «desproletarizatzea», gremioen eta artisauen garaiko ekoizpen-harreman aurrekapitalistak berrezartzea nahiz ekoizle txiki autonomoen bizikidetza «armoniatsua» berpiztea du amets

ges partikular batzuen aurkako eraso puntualak egin zituzten. Horrek guztiak muga ideologiko zein politikoak aurkituko zituen, ordea. Lehenik eta behin, ideologo faxistek, burges txikiak ziren heinean, «kapitalista alferrari, mailegu-emaileari, bankariari erasotzen diote, ez kapitalista ekoizleari» ⁽¹⁵⁾. Ondorioz, burgesia txikiaren interesak babestu ez ezik, klase-kontzientzia murriztagoa zuten langileen arreta osotasun kapitalistaren aurkako borrokatik desbideratzea ere lor zezaketen horren bidez. Bestalde, masa-mugimenduaren fasean kapitalista industrialak kritikatzen iritsi baziren ere, ez ziren urrune-gi joan. Hor ere ekoizpen-bitartekoen jabe txikien ameskeria atzerakoia islatu zituzten beste behin; asko jota, konpetentzia, kontzentrazio industrial edota monopolioak salatuz. «Nazional-sozialismoak gurpil kapitalistaren mugimendu mekanikoa eten nahi du, galga jarri nahi dio gurpil horri, eta gero gurpila kontrako noranzkoan birarazi nahi du abiapuntura iritsi arte, eta, iritsitakoan, bertan egonkortu» ⁽¹⁶⁾, adierazi zuen ideologo nazi gazte batek.

Faxismoak langileria erakarri eta politikoki neutralizatzeko baliatu zuen

beste amu garrantzitsu bat (eraginkorrena agian), hitzmate korporatibista izan zen. Korporatibismoak langileak *desproletarizatzea*, gremioen eta artisauen garaiko ekoizpen-harreman aurrekapitalistak berrezartzea nahiz ekoizle txiki autonomoen bizikidetza *armoniatsua* berpiztea du amets. Hori guztia arautzeko, irizpide *teknikoen* arabera (ofiziozka) bildutako ekoizleen interesak kontziliatu eta organikoki batzea zen ideia. Demokrazia liberal parlamentarioa ordezkatzeko zuen Estatu korporatibo bat inposatzea, alegia. Zentzu horretan, faxismoaren masa-mugimenduko eslogan ekonomikoek eta erreformismo klasikoak inspirazio obrerista beretik edaten dutela esan daiteke.

Nicos Poulantzas pentsalari marxista greko-frantsesak korporatibismo faxistaren zentzu historikoa eta hark langileen artean piztutako ilusioa azaldu zituen. Korporatibismoak, klase-kolaborazioa zein ameskeria atzerakoia sustatzeaz gain, ekoizpen-bitartekoen gaineko kontrola eskuratzeko langileek zituzten grina errealei erantzuten zizkion; koiuntura jakin baterako eta modu desbideratuan, betiere. Gainera,

tresna ideologiko-diskurtsibook politikoki *faxismoaren ezker hegalean*, sozialki klase ertainean eta historikoki masa-mugimenduaren fasean kokatu ohi direla zehaztu zuen Poulantzasek. Buruzagi faxistek eta haien gainetik zegoen burgesia monopolistak kate motzean lotu zituzten halako ideiak, bestelako gai obreristen erabilpena bezalaxe ⁽¹⁷⁾; ez arrisku iraultzailerik ekar zezaketelako, klase ertainari mugimenduaren baitan politikoki gailentzen ez uzteko baizik.

FAXISMOA BOTEREAN

Historiaren motorra errepresioz eta propagandaz itzali zutela sinetsita iritsi ziren faxistak boterera. Klase-borroka, ordea, artifiziaiki estalitako ibaien antzera, bere bidea egin zuen. Antagonismo sozialaren gaindipen faltsuak uholdeak eragin zituen nazioartean, faxistatutako herrialdeetan zein alderdi faxisten baitan. *Plebeio* faxisten demagogia obreristak geroz eta oztupo gehiago aurkituko zituen Estatu berriaren baitan, harik eta horma historikoaren kontra jo arte.

Langile klasearen gaineko esplotazioa areagotzeko, estatu faxistek *pro-*

«Plebeio» faxisten demagogia obreristak geroz eta oztopo gehiago aurkituko zituen Estatu berriaren baitan, harik eta horma historikoaren kontra jo arte

gresibotasuna eta *banaketaren* printzipioei erantzuten zien plan bat jarraitu zutela azaltzen du Poulantzasek. Borterean kokatu eta berehala, adibidez, kapital handi jakin batzuei nolabaiteko *konpromiso ekonomikoak* ezarri zizkieten, baina bien bitartean langile klasearen antolakundeak suntsitzen, enpresa batzordeak desegiten, greba eskubidea indargabetzen, hitzarmen kolektiboak deuseztatzen eta enprestatan *absolutismo patronala* berrezartzen ziharduten. Jarraian, langileen baitan *kategoria pribilegiatuak* sistematikoki sortzeari ekin zioten ⁽¹⁸⁾. Paraleloki, mugimendu faxistaren baitako fakzio obreristak nahiz langile-organoak garbitzen hasi ziren. 1933an, Alemaniako *sindikatu* faxistak hainbat lan-tegitan eragindako agitazioa zela eta, Hermann Göring Hitlerren eskuineko eskuak «enpresako zeluleta kideen, zeinak oraindik ez baitute ulertu Hirugarren Reicharen egiazko izaera, kontra energiaz jardutea» ⁽¹⁹⁾ gomendatu zion poliziari barne-zirkular batean. Hala, *sindikatu* faxistak Estatuaren eta patronalaren luzapen soil bihurtu ziren progresiboki.


Antzeko zerbait gertatu zen milizia faxistekin. *Laban luzeen gaua* dugu horren adibide perfektua. 1934ko ekainaren 30etik uztailaren 1era bitartean, masa-mugimenduaren fasean zehar

langileria zapaltzeko horren garrantzitsua izan zen SA erakunde paramilitarra garbitu zuten SSk eta Gestapo polizia sekretuak. SAK erreforma sozial sakonagoak nahiz miliziaren eta armadaren arteko fusioa eskatzen zituen, eta gainera, kaleetan liskarrak pizten zituen. Halaber, hilketa politiko selektibo batzuekin SA fanatikoa menpean hartu zuen Alderdi Naziak, goi-burgesiaren nahiz armadaren konfiantza bermatuz. Alemaniakoa adibide nabarmena eta odoltsuena den arren, antzeko ikaspena atera daiteke Espainiaren kasutik ere, zeinetan frankismoko familia kapitalista handiek Falangea organikoki irentsi eta instrumentalizatu zuten ⁽²⁰⁾.

Faxismoak bere benetako aurpegia erakutsi zion klase ertainari, eldarnio idealista garesti ordainaraziz. Manderlek azaldu zuen moduan, faxismoaren masa-mugimenduak langileria antolatua zanpatzea lortzen duenean, jada burutu du bere egitekoa kapital monopolistaren ordezkarien begien aurrean. Orduan, masa-mugimendu faxistaren burokratizazioa gauzatzen da, estatu-aparatu burgesean urtuz. Hori gerta dadin, *mugimenduaren helburuen* parte omen ziren muturreko demagogia plebeio burges txikiak azaletik zein ideologia ofizialetik desagerrarazi behar dira ⁽²¹⁾.

***Faxismoaren masa-mugimenduak
langileria antolatua zanpatzea
lortzen duenean, jada burutu du bere
egitekoa kapital monopolistaren
ordezkarien begien aurrean. Orduan,
masa-mugimendu faxistaren
burokratizazioa gauzatzen da,
estatu-aparatu burgesean urtuz***

Neurri guztion ostean, askoz errazagoa izan zitzairen soldaten eta bizi-mailaren murrizketak inposatzea. «Halako konkistak krisi larri baten bidez abiarazten direnean, burgesiak, lehenik eta behin, konkista horiek ahalbide duzuten indar-harremanean errealak aldatzen ditu, eta hori eginda baino ez da igarotzen konkista horiei zuzenean erasotzera» ⁽²²⁾, zioen Poulantzasek. Alemanian, esate baterako, 1933an naziak boterera heldu zirenetik 1935eko uda bitartean, soldadak % 25 eta % 40 artean jaitsi ziren. Gainera, langileen errenten gaineko zerga erregresibo mordo bat ezarri zituzten, soldata are gehiago murriztuz (% 20 eta % 30 artean). Ertain klasea baretzeko langabezia murriztu bazuten, patronalari behar baino langile gehiago kontratatzea eskatu ziotelako izan zen; zama gehigarriatik ordainsariak ematearen, soldata orokorrak murriztearen edota langile bakoitzaren lanordua kopurua jaistearen kontura, noski ⁽²³⁾. Behin erresistentzia proletarioa desartikulatuta, mugimenduko elementu ezkerkoiak zapalduta eta langile klasearen bizi-baldintzen aur-



kako erabateko ofentsiba ekonomikoa abiatuta, korporatibismoa izan zen faxismoak burgesia txikiaren eta langile aristokraziaren aurrean egin zuen azken ilusionismo ikuskizuna.

Faxismoaren oinarri sozialak oraindik bazuen promestutako korporatibismoarekiko halako esperantza bat. Goi-burgesiak, ordea, argi zuen ez zuela ekoizpenaren esferan inolako esku-hartze arrotzik onartuko. Klase ertain faxistek ekonomiaren esparruan erabaki politikoak hartzeko modu inozoan proposatzen zituzten erakunde *mistoak* behin eta berriz errefusatuak izan ziren estatu faxisten baitan. Guerinek klase borrokaren egoskortasuna seinalatzen du, erregimen totalitarioenaren erdian ere desagertzen ez zena: «Bestela esanda, langile

klaseak ekoizpenaren kontrola eta autogestioa lortzeko duen etengabeko aspirazioa, baita burgesiak bere botere absolutua kolokan jartzen duen edozein saiakeraren –kaltegabea iduri badezake ere– aurrean duen etsaitasun menderaezina ere» ⁽²⁴⁾.

Faxismoaren oinarri sozialak oraindik bazuen promestutako korporatibismoarekiko halako esperantza bat. Goi-burgesiak, ordea, argi zuen ez zuela ekoizpenaren esferan inolako esku-hartze arrotzik onartuko. Klase ertain faxistek ekonomiaren esparruan erabaki politikoak hartzeko modu inozoan proposatzen zituzten erakunde «mistoak» behin eta berriz errefusatuak izan ziren estatu faxisten baitan

Aginte fasea ezaugarritzen amaitzeko, faxismoaren politika ekonomikoaren puntu kardinalak aipatuko ditugu, nahiko ezagunak diren arren: monopolio estatalen kapitalismo pribatuaren berrezarkuntza, kapital handiarentzako amnistia fiskalak, industria berriak irekitzeko debekua, monopolio nazionalekin lehiatzen zuten bestelako ekoizleak talde industrialetara batzera derrigortzea, *galeren sozializazioaren* bidez enpresa defizitarioak salbatzea, defentsarako zein obra publikoetako kontratuekin Estatua industriaren bezero nagusi bilakatzea, Estatuaren defizitari aurre egiteko aurrezki kutxen eta bankuen kontrolaren bidez errendatun txikien funtsak mobilizatzea, autarkia, gerra ekonomia, eta abar ⁽²⁵⁾. «Faxismoaren “guztia ala ezer ez” politika finantza-esferara igarotzen da, eta ez du atzerriko abentura militarra ez den beste irtenbiderik uzten», zioen Mandelek neurri etsion harira. Agerikoa denez, halako erabakiek ez zioten burgesia txikiaren zein langile aristokraziaren interes ekonomiko-politikoiei mesede handirik egiten; kontrara, oso kaltetuta uzten zituen. Joera horiek gauzatu eta faxismoaren klase-izaera agerian geratzen zihoan heinean, haren oinarri aktibo eta kontzientea ezinbestean murriztu zen, hots, diktadura faxistak bere masa-oinarria suntsitzeko joera izan zuen ⁽²⁶⁾.

***Faxismoaren klase-izaera
agerian geratzen zihoan
heinean, haren oinarri aktibo
eta kontzientea ezinbestean
murriztu zen, hots, diktadura
faxistak bere masa-oinarria
suntsitzeko joera izan zuen***

OBRERISMO FAXISTA GAUR EGUN

Azkenik, erreparatu diezaiegun obrerismoak egungo mugimendu faxisten baitan duen tokia baldintzatzen duten faktoreei eta XXI. mendeko obrerismo faxistaren hainbat adierazpeni. Faktoreei helduz, faxismoaren egungo egoera politikoa joan den mendekoa baino marjinalagoa dela hauteman daiteke, eta krisi kapitalista, berriz, geroz eta gordinagoa. Bi elementuok talde faxista zein kontserbadore ugari demagogia obrerista berrartzeko aukera bat zabaltzen dute ⁽²⁷⁾. Diskurtso obrerista horiek, ordea, ez dute aurretik aztertutako esperientzian izan zuen zentzu taktiko bera, oraingoz ez dagoelako estatu demokratiko burgesak errepresio bidez garaitu ezin dezakeen eta ezinbestean zapaldu behar duen erresistentzia proletario indartsurik artikulatuta. Faxismoaren fraseologia obrerista garaikidearen zentzua, beraz, gehiago kokatu behar da haren autonomia ideologiko erlatiboan, langileria desbideratzeko urgentzia historikoan baino. Bestalde, autonomia ideologikoaren auziari jarraiki, ez da ahaztu behar obrerismoa klase ertainek espontaneoki erreproduzitzen duten logika bat dela; hau da, faxismoa klase ertainen semea denez, zentzua du osagaiok talde faxistetan presentzia minimo iraunkorra izateak. Hala ere, egia da prebentzio kontrairaultzailearen funtzio objektiboa ere jarraikorra dela gizarte kapitalistetan. Azkenik, ekoizpen-indarren modernizazioaren harira, industria astuna garrantzia estrukturala galduz doa Europako ehun produktiboan. Hori dela eta, faxismoaren zaldiairen alde apustu egin zuen artekari historiko konkretua materialki zein politikoki ahuldu da kontinente zaharrean. Faktore guztion konbinazioaren emaitzak ondokoak lirateke: masa-mugimendu faxista gihartsuak zein estatu faxista berriak sortzeko aukera XX. mende hasieran baino zailagoa da. Baina bestetik, diskurtso obreristentzako abagune *autonomo* bat berpizten ari da faxismoaren baitan;

***Masa-mugimendu faxista
gihartsuak zein estatu faxista
berriak sortzeko aukera XX. mende
hasieran baino zailagoa da. Baina
bestetik, diskurtso obreristentzako
abagune «autonomo» bat berpizten
ari da faxismoaren baitan***



betiere, masa zabalak erakartzeko eraginkortasun politiko ziurgabea duena. Kapital monopolistaren interes koiunturalak edozein izanik ere, gizarte burgesa zutik den bitartean, faxismoaren printzipioekin bat egiten duten ideologo zein militanteak egongo dira. Hori bai, beraien arrakasta politikorako aukera kapitalaren barne-dinamikaren (krisia eta lehia inperialista) nahiz langile mugimenduaren garapen politikoaren menpekoa izango da.

XXI. mendeko faxismoaren adierazpen obreristei dagokienez, bi kasuistika interesgarri bereizi ditzakegu: batetik, talde neofaxista *puruen* propaganda klasikoa, eta bestetik, faxistatze prozesu bete-betean dauden langile antolakundeak. Talde neofaxistek joan den mendeko formula berbera baliatzen dute langileria interpelatzeko. *Hogar Social Madrid* Espainiako talde neonaziak, adibidez, ondorengoa zioen: «Taxiaren defentsaz hitz egiten dugunean subiranotasun nazionalaz ari gara, langile jendeaz, erraldoien aurrean amore ematen ez dutenez»⁽²⁸⁾, 2018ko taxi gidarien grebaren harira. Adin txikiko proletario migratzaileen kontrako erasoak egin dituen *Bastión Frontal*



Ongizate Estatuaren prestazio sozial guztiak...). Bestetik, multinazionalen aurkako betiko demagogia antikapitalista burges txikia ere aurki dezakegu *Casa Pound*en adierazpenetan. Langile klase italiarra Europar Batasunaren zein kapital atzerritarren aurrean subiranotasun nazionala galdu duen Italiar Nazioarekin identifikatzen dute. «Langileek enpresaren kudeaketan eta irabazietan parte hartzea»⁽³⁰⁾ ere proposatzen dute, aldarrikapen korporatibista klasikoa mantenduz.

Faxistatze prozesuan dauden langile antolakundeetara jotzen badugu, Espainiako Estatuko *Frente Obrero*ekin egiten dugu topo. Erakunde horrek ezkerrean kokatzen du bere burua, ezkertiarra eta erreakzionarioa izatea bateragarriak direla enegarrenez frogatuz. Faxista bihurtu ziren sindikalista sozietarrek⁽³¹⁾ XX. mende hasieran egin zuten antzera, *Frente Obrero*ko geroz eta nabarmenagoa den espainiar nazionalismoarekin lotzen du bere *sindikalismo iraultzailea*.

Espainiako gazte antolakunde berriak honela definitzen du bere burua: «aizoko jendea, umila, langile klaseko jendea»⁽²⁹⁾. Europako mugimendu faxista garaikideen artean pentsaera osatuenetarikoa duena, ordea, Italiako *Casa Pound* antolakundea izan daiteke. Bere programa irakurtzen badugu, politika ekonomiko, energetiko zein soziala proposamen obreristaz josita dagoela ikus dezakegu (enplegu osoa, berrindustrializazioa, eskulanaren itzulera, etxebizitza jabetzan izateko eskubidea,

tzen du bere *sindikalismo iraultzailea*. Mussoliniren Italian ministro izan zen Edmondo Rossoni sozietararen hitzetan, «italiar langileen zortea modu banezinean dago nazio italiarrari lotuta»⁽³²⁾. *Frente Obrero*ren irakurketetan zentraltasuna duen *aberr*i kontzeptuari begira, antzekotasun ugari dituztela konturatuko gara. «Langileak gara egiazko abertzaleak; geure herrialdea altxatzen dugu eta geure aberria erakitzen dugu egunero. Horrenbestez, Espainiaren historia ez da espainiar

XXI. mendeko faxismoaren adierazpen obreristei dagokienez, bi kasuistika interesgarri bereizi ditzakegu: batetik, talde neofaxista «puruen» propaganda klasikoa, eta bestetik, faxistatze prozesu bete-betean dauden langile antolakundeak

herriaren historia baino», zioten urriaren 12ko Hispanitate Egunaren harira. Are gehiago, «gu ez gara kultura yankia eta Europar Batasuneko inperialismoa ezartzeko beren aberriarekiko ukazioa sustatzen duten progre nihilista horiek. Geure herrialdea, Espainia, eraldatu nahi dugu, eta ez dago herrialde bat eraldatzerik hari iskin eginda»⁽³³⁾. Bi gerturapen, beraz, faxismoaren masa-mugimenduko ideia obreristekin: batetik, langile klasearen eta nazioaren arteko identifikazioa. Bestetik, antagonismo ekonomiko, politiko zein kulturala burgesia internazionalarengan proiektatzea.

Joan den maiatzaren 18an *Frente Obrerok* hurbilpen xenofoboa izan zuen gainera. Marokoren eta Espainiaren arteko krisi diplomatiko baten harira, migratzaile ugari bi estatuen arteko muga gurutzatzen saiatu ziren. Horren aurrean, «Espainiaren subiranotasun nazionalaren berreskurapena» aldarrikatu zuen *Frente Obrerok*, baita muga ixtea nahiz Marokorekin harreman diplomatikoak etetea ere. Irakurketak ez zuen migratzaileen aurkako gorroto faxista espliziturik adierazten, baina edonola ere, jauzi kualitatibo bat zekarren *subiranotasun nazionalaren* defentsan: «geure herrialdea beren muga propioa babesteko ordaintzera behartzen du, eta gainera, Europar Batasunak ere horixe egitea exijitzen du. Beren herrialde propioaren mugak kontrolatzea beren betebeharra ez balitz bezala!»⁽³⁴⁾. Hala, elkarretaratzeak deitu zituzten Espainiako Estatuko hainbat hiriburutan. Horietako zenbaitek ia-ia Falangearen eta *Bastión Frontalen* deialdiekin topo egin zuten.

ONDORIOAK

Formazio sozial kapitalistari berezkoa zaion krisiaren gurpil eroak zein gerra-jokoek aurrera jarraitzen duten artean, klase agintariak proletalgoaren aurrean eskua pistolara eramateko tentazioa izango du etengabe. Ekoizpen eredu kapitalistaren kontraesanak eta potentzia inperialisten arteko lehia areagotzen ari direla ikusita, militantzia komunistak ezin dio ez arreta analitikorik ez garrantzia politikorik kendu mehatxu *fascioari*. Indartsu zein ahul, idealista konbentzituz ala teknokrata ustelez osatuta egon, itxura chauvinista zein obreristaz jantzi, faxismoak zelatari aurki gaitzala beti ●

ERREFERENTZIAK

(1) *Schutzstaffel* izen osoz, defentsa-eskuadra euskaraz. Hurrenez hurren, Alemaniako Langile Alderdi Nazionalsozialistaren eta erregimen naziaren defentsaz arduratzen zen aparatuko politiko-militar integrala zen.

(2) Guerin, D. *Fascismo y gran capital*. Editorial Fundamentos. Madril, 1973. 35-38 orr.

(3) Marx, K. *El Capital. Crítica de la economía política. Libro primero. El proceso de producción del capital*. Siglo XXI de España Editores. Madril, 2021. 263-274 orr.

(4) Guerin, D. *Fascismo y gran capital*. Editorial Fundamentos. Madril, 1973. 38-39 orr.

(5) Mandel, E. *El fascismo*. ernestmandel.org. 27 orr.

(6) Ibídem.

(7) Ibídem. 28 orr.

(8) Ibídem.

(9) Ibídem.

(10) Reich, W. *Psicología de masas del fascismo*. Editorial Ayuso. Madril, 1972. 60 orr.

(11) Guerin, D. *Fascismo y gran capital*. Editorial Fundamentos. Madril, 1973. 19-20 orr.

(12) Ibídem. 120 orr

(13) Reich, W. *Psicología de masas del fascismo*. Editorial Ayuso. Madril, 1972. 64 orr.

(14) Daniel Guerinek aipatua, *Fascismo y gran capital*-en. Editorial Fundamentos. Madril, 1973. 122 orr.

(15) Guerin, D. *Fascismo y gran capital*. Editorial Fundamentos. Madril, 1973. 127 orr.

(16) Daniel Guerinek aipatua, *Fascismo y gran capital*-en. Editorial Fundamentos. Madril, 1973. 132 orr.

(17) Poulantzas, N. *Fascismo y dictadura, La III Internacional frente al fascismo*. Siglo XXI Editores. Madril, 1973. 188-189 orr.

(18) Ibídem. 190-191 orr.

(19) Daniel Guerinek aipatua, *Fascismo y gran capital*-en. Editorial Fundamentos. Madril, 1973. 278 orr.

(20) Kortazar, J. *Frankismoa, faxismoa eta faxistatzea*. Artekak.

(21) Mandel, E. *El fascismo*. Ernestmandel.org. 15 orr.

(22) Poulantzas, N. *Fascismo y dictadura, La III Internacional frente al fascismo*. Siglo XXI Editores. Madril, 1973. 158 orr.

(23) Guerin, D. *Fascismo y gran capital*. Editorial Fundamentos. Madril, 1973. 282-283 orr.

(24) Ibídem. 286-287 orr.

(25) Faxismoaren politika ekonomikoan sakontzeko, ikus Daniel Guerinen *Fascismo y gran capital*, 299-367 orr.

(26) Mandel, E. *El fascismo*. ernestmandel.org. 15 orr.

(27) Aldalur, B. *Faxismoa XXI. mendean. Konparaketa historiko bat*. Artekak.

(28) Hogar Social Madrid en defensa del sector del Taxi (2018ko uztailaren 31). *elmunicipio.es*.

(29) Ortega, P. *Bastión Frontal, la extrema derecha nacida con la pandemia* (2021eko otsailaren 11) *elpais.com*.

(30) Casa Pound Italia. II Programa. *casapounditalia.org*.

(31) Sorelianismoa XIX eta XX. mendeetan zehar bizi izan zen Georges Sorel sindikalista frantsesaren pentsamenduan inspiratzen da. Sozialismoaren eta marxismoaren berrikuspen kontserbadoreekin, greba orokorra eta *mitoa* zituzten klase borrokan garaitzeko gakotzat. Zenbait historialariren ustez, Sorelek proletalgora komunitate nazionalarekin ordezkatu zuen, faxismoarentzat erabilgarriak izango ziren kontzeptuak sortuz.

(32) Daniel Guerinek aipatua, *Fascismo y gran capital*-en. Editorial Fundamentos. Madril, 1973. 120 orr.

(33) Comité Pro-Frente Obrero España. *La Hispanidad*. Unión nº5: Por la España Obrera y Popular. 11 orr.

(34) Frente Obrero España. *Movilización contra el gobierno de Marruecos*. *frenteobrero.es*.

BIBLIOGRAFIA

Anonimoa. *¿Qué antifascismo vencerá al fascismo?* *elcorro.org*, 2022.

Guerin, D. *Fascismo y gran capital*. Editorial Fundamentos. Madril, 1973.

Mandel, E. *El fascismo*.

Poulantzas, N. *Fascismo y dictadura, La III Internacional frente al fascismo*. Siglo XXI Editores. Madril, 1973.

Reich, W. *Psicología de masas del fascismo*. Editorial Ayuso. Madril, 1972.

Rosés, A. *El capitalismo alemán y los orígenes del nazismo: La Liga Antibolchevique (1918) y el «socialismo» de los industriales del acero*. Archivos de la Historia, 2021.

Obrerismoa, ajeatutako errepresentazioa

Testua — **Arteka**





«Lanak Amerika
ordaintzen du»

Langile mugimenduaren garapen historikoaren erronketako bat masak balio sistema berrietan hezteko eta horiek hegemoniaren lehiara batzeko errepresentazio markoak garatzeko gaitasuna eskuratzea izan da. Harik eta kapitalismoaren esfera artistikoa gainditzeko behar beste dimentsio lortzeko gaitasuna garatzen den arte. Finean, antolakuntzaren eta artearen arteko batasuna gizartearen eraldaketa iraultzailea emateko norabidean lerratzea bilatzen duen borroka kulturala da.


Halatan, hanka-sartzea litzateke agitazioa eta propaganda irudikatze hutsera mugatzea, baita horiek ekoizpen grafikora mugatzea ere: masa komunikazioan edukia eta forma helarazteko elementu banaezinak dira. Agitazioaren eta propagandaren batasun kulturalaren adibide argigarria da Alderdi Komunista Sobietarrak 1925ean kirola, hezkuntza fisikorako bide ez ezik, masen hezkuntzarako birtarteko gisa ere ezartzeko erabilitako arrazoiketa: borondatearen garapena errazten duela eta langileen gehien-goia Alderdiaren antolakuntzara batzeko gaitasuna erakusten duela. Gauzak horrela, kontuan hartzeko hainbat auzi azaleratzen ditu: hezkuntza, baloreen asimilazioa eta fenomeno sozialaren arabera antolatzea, hain zuzen ere. Adibide horrek argi uzten du ez direla formatu grafikoa, irudikapena, mezua, agitazioaren eta propagandaren egin-beharra zehazten duten behinenak, baizik eta kontzientziak aktibatze marko bat dela, eguneroko bizitzatik proletalgoarekin elkarrizketan jartzen dena, antolakuntza elikatze eta balio sozialistak hedatzeko.



ТОВАРИЩИ, НА Э

**Nicolay
Tereschenko, 1952**
«Kamaradok,
prestatu ariketa
fisikoa egiteko!»

Hanka-sartzea litzateke agitazioa eta propaganda irudikatze hutsera mugatzea, baita horiek ekoizpen grafikora mugatzea ere: masa komunikazioan edukia eta forma helarazteko elementu banaezinak dira



Maria Nesterova-Berzina, 1945
«Gazteak eskiatzera!»



Victor Govorkov, 1935
«Munduko errekor guztiak ezarri behar ditugu!»



Gari-bahetzaileak

Gustave
Courbet, 1854

Horregatik guztiagatik, agitazio-
tik eta propagandatik harago, borroka
kulturalaren historikotasuna albora-
tzea litzateke horren garapena esplota-
zio eta gaitasun kultural pobreetan
itota dagoen langileria-aren jarrerak
eta nahiak zehazten dituen errepre-
sentazio tradizio burgesak plano iko-
nografiko eta estetikoan gainditzera
mugatzea.

Frantziako Iraultzatik Parisko Ko-
munara arteko zehar-lerro argi bat da-
go, Errusiako Iraultzara hedatzen dena
eta Lehen Mundu Gerraren bihamu-
netan orokortzen dena. Teknologia-
ren eta ekoizpen modu fordistaren gara-
penearekin, XIX. mendearen azken zatian
eta XX. mendearen hasieran, lantegi
handietan pilatutako langile industria-
laren karakterizazioa indartu ziren; era
berean, Bigarren Industria Iraultzak
berarekin zekarren ekoizpen grafi-
korako teknologien garapenak –baita
mundu mailako lehen gertakari beli-
koak zabaltzen duen ikuskera inter-

nazionalak ere– masa kontsumorako
dispositibo kulturalen sorrera ekarri
zuen, finean, propagandaren garapena
masa kulturalan. Fenomeno horiek za-
baldu zuten kalitate artistikoaren gai-
neko eztabaida, kontsumo elitistarena
eta folkloreaken hibridotasunarena; in-
teres handikoak badira ere, ez ditugu
artikulu honetan landuko.

Aipatu bezala, testuinguru horrek
ahalbidetu zuen iraultza justifikatzeko
eta zentzu komuna birdefinitzeko ma-
santzako artearen agerpena: artearen
eta gizartearen eraldaketa iraultzai-
learen arteko batasuna. *Maraten He-
riotza* (1793) artelan errepublikanotik
–Frantziako Iraultzan balio errepubli-
kanoak zabaltzeko Jacques-Louis Davi-
den obra–, Parisko Komunaren garaian
Courbet bezalako artistek mantenu-
du zuten tradizio-
tik igaro, eta Sobie-
tar Batasunean lehen abangoardiekin
izan zuen loraldira arte: Aleksandr
Rödchenko, Sergei Einsentein, Varva-
ra Stepanova, Vladimir Mayakovsku...



Marat-en heriotza

Jacques-Louis
David, 1793



Ekainaren 9an, polizia eraso egin
zuen Renaultek Flinsen duen fabrika
erraldoi batean zeudenei, Paristik
gertu dagoen landa-eremu batean.
Ikasle batzuk Paristik joan ziren
erresistentzia defendatzera, baina
ahalegina alferrik izan zen. Ikasle
nerabe bat hil zuten liskarretan

Ezin azter daitezke ibilbide hori kontuan hartu gabe 68ko Maiatzekoa bezalako esperientzia garaikideagoak. Argigarriak dira, Frantziako Errepublikako presidente ohiaren, De Gaulle hitzak maiatz frantses hartan, asaldatura zioenean zertaz kexu ote ziren praka bakeroak, txikleak, whiskia, ile luzea, pelikulak, liburuak eta autoak zituzten ikasle haiek. Hain zuzen ere, gizartearen hedapen kapitalistaren seme-alaba haiek, gerraosteko oparotasunaren oinordeko, ekoizpen modu tayloristaren lekuko eta ekonomia keynesiarraren besoetako, promesa kapitalistaren sasiko seme-alaba bilakatu ziren. Euren kritika artistikoa, askatasunaren aldarriaren bidez, kapitalismoak zein haren zapalkuntza formek sortutako desengainua erakusten zuten.

Oihu hedonista gazte hark baina, mundu zaharrarekiko azaleko erkaketatik harago, errepresentazioan ezin izan zuen guztiz apurtu obrerismo fabrilaren zentraltasunarekin. Garapen kultural neoliberalak azkenean bere egingo zuen *grand soir* hura, ezinbestean, estu lotuta baitzegoen fabrika handietan garatzen ari ziren borroka sindikaletara. Propagandaren ekoizpen materialari eta artisten antolakuntzari dagokion proposamen artistikoa (serigrafia bezalako teknika soilekin egindako kartelak, erraz egin eta zabal zitezkeenak) ez zen lanaren antolakuntza optimoa lelo zuen erreforma tayloristaren apurketa performatiboa baino, azken batean, garapen kultural hura guztia bi hamarkadatan integratu egin zen eredu ekonomikoaren gailurrean, une kulturalaren garrantzia babestuko zuen antolakuntza komunistaren faltan.

Oihu hedonista gazte hark baina, mundu zaharrarekiko azaleko erkaketatik harago, errepresentazioan ezin izan zuen guztiz apurtu obrerismo fabrilaren zentraltasunarekin. Garapen kultural neoliberalak azkenean bere egingo zuen «grand soir» hura, ezinbestean, estu lotuta baitzegoen fabrika handietan garatzen ari ziren borroka sindikaletara



«Borrokak jarraitzen du»



«Orain lan egitea bizkarrean arma batekin lan egitea da»




«Gu boterea gara»

***Errerepresentazio artistikoa
XX. mendean gertatu
diren gatazken garapen
historikora ez ezik, ekoizpen
indarren garapenera eta lan
indarrak bertan izan duen
jardunera ere lotuta dago***





«Gizon gazteentzako aukera bat lanerako, jolaserako, hezkuntzarako eta osasunerako»



Antolakuntza hutsune horretatik baino ezin daiteke aztertu irudikapen obreristak antza helburu kontrajarriak dituzten korronte propagandistikoetara duen egokikortasuna. Horren adibide da, Roosveltek martxan jarritako *Works Progress Administration*en jardun artistiko eta kulturala. Hain zuzen ere, egitasmo horrek Ameriketako Estatu Batuen identitate nazionalaren eta depresio handiaren ondorengo *New Deal* eredu ekonomikoaren arteko batasuna bilatzea zuen helburu. Hartara, instituzio horrek langabezia zeuden herritarrek soldata pean laneratzea zuen xede, zerbitzuetan eta azpiegituren eraikuntzan, hain zuzen. Finean, gainbalioaren erauzketa piztu nahi zuen, langabeen kontratazioa bultzatuz eta lagunduz, oinarrian lan indar merkea eta azpiegitura eta zerbitzu handiak izango zituen ekoizpen eredu garatzeko. Helburu horren pean jarri zen martxan *Federal Art Projecta*; hain zuzen ere, arte agentzia horrek ekoizpen artistikorako 100 egoitza baino gehiago batu zituen eta soldata pean izan zituen 10.000 artista baino gehiago, zertarako eta erreformaren espirtua zabalduko zuten lanak egiteko.

Horregatik, errepresentazio artistikoa XX. mendean gertatu diren gatazken garapen historikora ez ezik, ekoizpen indarren garapenera eta lan indarrak bertan izan duen jardunera ere lotuta dago. Hala, ez du soilik langileak lan produktiboaren garapenean duen papera islatzen, testuinguru historikoan aztertu behar da; izan ere, errepresentazio hutsak proletalgoaren harreman ekonomikoa eta errealtatea besterik ez baititu agerian uzten. Horregatik, aipatu beharra dago berorren garapena identitate nazionalaren eraikuntzari lotuta dagoela, gizarte kapitalistaren funtzionalitatearen harmoniari, alegia, WPAREN proposamen artistikoan ikus dezakegun bezala. Era berean, dominazio harremanen biziraupenerako bitarteko kulturala da eta langileriaren ordezkartza patriotikoaren irudikapena elikatzen du zentzu horretan.



«Babestu zure eskuak, haiekin lan egiten duzu eta»



«Emakumeek garaipenerako, nekazaritzarako, bulegorako, fabrikarako lan egiten dute»

Adolf Hitlerrek berak «Nire Borroka» (1925) liburuan azpimarratu zuen propagandaren garrantzia: «propagandaren erabilera alderdi burgesentzat oro har ezezagun mantendu den benetako artea da»

Hain zuzen ere, *Artekako* ale honetan bertan faxismoari eta kapital industrialari buruzko erreportajeak aurkezten digu langile industrialaren erretorikak mugimendu faxistan izan zuen paperaren inguruko hausnarketa. Ezinbestean aipatu behar dira bi faktore: bata, mugimenduaren izaera nazional-patriotikoa eta krisi kapitalistaren testuinguruan klase ertainak jasandako pobrezia erlatiboa, eta, bestea, Versaillesko Itunaren biharamunak utzitako klausula ekonomiko, laboral eta militarrek 1929ko krakak eragindako funts estatubatuarren desagertapenarekin batera. Hain justu, mehatxu kapitalista atzerritarra, judutarra –baita boltxebikea ere, sarritan subjektu bakar gisa aurkeztuta– eta testuinguru ekonomikoak eragindako bizi baldintzen kaskartzea ditu erretorika haztegi.

Zalantzarik gabe, ez dago testuinguru horretatik salbu Joseph Goebbels propaganda naziaren ikur adierazgarria. Hirugarren Reicheko ilustrazio Publikorako eta Propagandarako ministroak erabilitako estrategia errepresentatiboan haren gaztaroa markatu zuten bizi baldintzek zein Lehen Mundu Gerra osteko Alemania garaituaz egin zen irudikatze internazionalak eragin bete izan zuten. Faxismoaren ezker hanka, hegala obrerista, izendatutako SAko kide izan zen Laban Luzeen Gaua delako traiziora arte, alemaniar faxismoaren botere-hartzearako ezinbestekoa izan zen haren jarduna. Adolf Hitlerrek berak *Nire Borroka* (1925) liburuan azpimarratu zuen propagandaren garrantzia: «propagandaren erabilera alderdi burgesentzat oro har ezezagun mantendu den benetako artea da».

Alemanian Langileen Alderdi Nazionalsozialistaren propaganda organo nagusia ez bairik gabe *Völkischer Beobachter* (Herriaren ikuskaria) egunkaria izan zen, baina, era berean, aipatzekoa da Nurenbergeko kongresuaren grabaketa, adibidez. Dena den, Goebbelsen estrategiaren funtsa ez ziren eskuorriak eta kartelak, diziplinaren errepresentazioa baizik: ordena erakutsi nahi zuen kaosean. Hala, eguneroko ogi bilakatu ziren antortxa eta guzti uniformatutako desfileen antzezpeneak. Horrez gain, Goebbelsen kezketako bat masek eduki propagandistikorako zuten sarbidea zen, horregatik, irrati bidezko emisioen jabe egin zen; bozgorailuak jarri zituen plaza, kale eta lantegietan langileriak albisteak entzun zituzten. Era berean, Volksempfänger (herriaren hargailua) irrati erostekak lagundu zituzten, epeko ordainketa sistemaren bidez. Urte gutxian ia etxe gehienek zeukaten halako irrati bat, eta bertan entzun zitezkeen albisteak, Hitlerren diskurtsoak eta entretenimendurako edukiak besteak beste. Bi helburu bete zituzten hala: informatzea eta hezteak.

«Alemania osoak liderra entzuten du Volksempfänger-arekin»





«Langileok, bulegari zein eskulangile, Hitler soldaduari bozka!»



«Jendea jaiki eta pizten da ekaitza»



«Gu, langileok, esna gaude»



Maiatzaren 1eko kartel nazia

Azkenik, Goebbelsen estrategiaren beste ardatz nagusietako bat arteen nazifikazioa izan zen. Reicheko Kultura Ganberaren bidez, «boltxebismo kulturala» ezabatu nahi izan zuen, literaturaren, antzerkiaren, zinemaren eta arte ederren industriaren kontrola eskuratzeko eta propagandara bideratzeko. Aipatzekoa da, halaber, Propagandarako Ministerioak antolatu zituen Berlingo Olinpiar Jokoen (1936) garrantzia, nazioarteko erakusleiko gisa. Azken batean, Goebbelsen propagandaren ardatz nagusia langile masarentzat propaganda dispositiboak sortzea izan zen, boltxebismoaren aurkako gurutzada batean nazio nortasuna garatzeko eta potentzia alemaniarra birsortzeko.

***Ez dago agitaziorik eta
propagandarik borroka
kulturalaren garapen
historikoaren hutsune batean,
baina ezta antolakuntza
hutsune batean ere, hau da,
antolakundeen barruan
masa kulturen eragin
dezaketen kultur garapeneko
espazioak eta dispositiboak
ezartzetik abiatzen da***

**Azkenaldian, sozialdemokraziak
egun bizi omen duen azaleko
eskizofreniaz hitz egin da. Bada,
hain zuzen ere, eskizofrenia horrek
errepresentazioaren planoan zein
antolakuntza eta ideologiaren
artean dagoen inkoherentziari
besterik ez dio erreferentzia egiten**

APARATO DE AGIT-PROP

**Fernando Hernandez Sanchez, *Guerra o
revolución*, Bartzelona, Crítica, 2010**

PCEren agitazio eta propaganda
aparatua (1937-1938)

BANATZAILEA

- LIBURUAK ETA LIBURUXKAK
- EGUNKARIAK ETA ALDIZKARIAK
- LIBURU-DENDAK

MITINAK ETA HIZLARIAK

PROPAGANDA ATZERRIAN

FINANTZAK

ESKOLAK

PRENTSA BATZORDE NAZIONALA

PRENTSA

- EGUNKARIAK
- ASTEKARIA

FILM HERRIKOIA

- EKOIZPENA
- BANAKETA

PRENTSA-AGENTZIAK

- AIMA
- PARCO

ARGITALPENAK

- PC
- NUESTRO PUEBLO
- EUROPA-AMERIKA
- ESTRELLA

IRRATIA

FRONTEAREN BOZGORAILUA

- ARTE PLASTIKOAK
- MUSIKA ETA LIBURUAK
- ANTZERKIA ETA TAULA GORRIA

Finean, agitazio eta propagandarena dispositiboak artikulatzeko estrategia oso bat da, komunikazioa masa kulturaren txertatzeko aspirazio integratzaile bat barne biltzen duena, errepresentazio grafikotik harago, testu honen hasieran aipatzen genuen bezala. Errealitatearen gaitasun antolatzaile eta antolatua nabarmentzen du, baita antolakuntza indarren garapena ere. Urrutira joan gabe, horren adierazle da PCEren (1937-1938) propaganda eta agitaziorako programaren diseinua, *Fernando Hernández Sánchez, La maldición de Sisifo: Auge, caída y reconstrucción del PCE (1936-1953)*: «Baliabide grafikoak, argazkiak eta marrazkiak ikonografia propioaren erreperitorio propioetik eratorritako irudi idealizatu eta arketipatuak zabaltzeko erabiltzen ziren, mezu subliminal batekin. Titular handiek irakurgarritasuna errazten zuten, baita urrutitik ere, baina hartzailearen aurretiko baldintzapena eta aukeraketa lana egin behar izatea eskatzen zuten. Kontsigna politikoak zabaltzeko bide erraza ziren, eta horiek alfabetatze maila baxuagoko herriarretara hel zitezen ahalbidetzen zuten». Iturri beraren arabera, aleen batez besteko zabalpena bi miloi irakurletik gorakoa zen.

***Agitazioa eta propaganda
tresna dituen borroka kultural
horrek oraindik existitzen ez
diren errealitateak proiektatu
behar baditu ere, zantzu batzuk
behintzat, irudikapen horrek
ezin du haren garapenarekiko
kontraesankorra izan, horra hor
zergatik dauden ezinbestean lotuta***

Beraz, ez dago agitaziorik eta propagandarik borroka kulturalaren garapen historikoaren hutsune batean, baina ezta antolakuntza hutsune batean ere, hau da, antolakundeen barruan masa kulturean eragin dezaketen kultur garapeneko espazioak eta dispositiboak ezartzetik abiatzen da, eta gaitasun teknikoak ematen dizkie, azken batean, artearen eta gizartearen arteko harremana eraldatzeko. Ideien, antolakuntzaren eta errepresentazioaren batasuna banaezina da. Harreman ukaezina dago antolakuntza formen, komunikazio politikoaren nahiz agitzio eta propagandaren artean, sintonia horretan garatu beharreko lan esparru gisara. Horregatik, esku artean dugun azterketak ezin ahanztu dezake aspektu horietako bat bera ere, eta ezin du horietako bakoitza bere aldetik aztertu; horrek antolakundeek ekoizpen grafikoaren alorrean dituzten gaitasun teknikoak baino ez lituzkeelako azalera-tuko, eta eragina errepresentazioaren harrigarritasunerako mugatuko luke.

Azkenaldian, sozialdemokraziak egun bizi omen duen azaleko eskizofreniaz hitz egin da. Bada, hain zuzen ere, eskizofrenia horrek errepresentazioaren planoan zein antolakuntza eta ideologiaren artean dagoen inkoherentziari besterik ez dio erreferentzia egiten. Gainera, azterketa hori ezin bana daiteke egun bizi dugun kapitalismoaren krisi testuingurutik, ezta horren aurrean agertoki hori gainditzeko gaitasunak dituen antolakuntzaren hutsunetik ere. Gauzak horrela, miseria kapitalistaren errepresentazio hutsa, eta subjektua (kasurik onenean) lotura historiko huts gisara aurkeztea edo azken horren erabateko desitxuratzeara, antza, kontrajarrita dauden proposamen politikoak alderatu ahal izateko lotura analitikoak.

Arteka hilabetekariko zenbaki honek jasotzen duen *Obrerismoak*, *bai-kortasunetik erreakziora* artikuluan, Dani Askunzek langile, klase eta antzeko terminoen berpiztea aipatzen du. Era berean, bada egiten duen galdera bat: gaur egun langilearen identitatea beste askoren arteko bat baino ez ote den, eta, zehatzago, horiei kontrajarritako agertzen ote den edo bateragarria ote den.

Gogoeta horrek garamatza propaganda eta antolakuntzaren ezinbesteko batasuna azpimarratzera. Izan ere, hala egitekotan errepresentazioaren esparruari identitateak artikulatzeko gaitasuna aitortzen ariko ginateke, hau da, subjektua antolakuntzatik kanpo eraikitzeko ahalmena ematen ariko ginateke, propagandaren eta agitazioaren benetako gaitasun politikoa ukatuz. Irakurketa gramsciar okerra edo praktika populista lacaniar baikorregia litzateke hori, ideologiaren eraikuntza errepresentazioan eta antolakuntzarekiko banatuta kokatzen duena. Hau da, egungo kultura industriak, guztiz beharrezkoa ez bazaio ere, ideologia kapitalista betikotzen du, ez soilik kosmobisio kapitalista etengabe irudikatuz, baizik eta gizarteak egun antolaketa horretan funtzionatzen duelako, eta proletalgoaren errepresentazioa errealitate horren baldintzapean dago. Horregatik, eskala txikiagoan antolakuntzaren gabeziak errepresentazio obreristaren bidez konpondu nahi izatea bezain arriskutsua da gatazkaren eta subjektuaren gainerrepresentazioa egitea, agitazioa eta propaganda baliatuta. Agitazioa eta propaganda tresna dituen borroka kultural horrek oraindik existitzen ez diren errealitateak proiektatu behar baditu ere, zantzu batzuk behintzat, irudikapen horrek ezin du haren garapenarekiko kontraesankorra izan, horra hor zergatik dauden ezinbestean lotuta. Gainontzekoa marketin korporatiboa besterik ez da ●

Argitalpena
2022KO URTARRILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia




arteka